

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5392

AGINDUA, 2014ko azaroaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2015. urterako «Kultura Ondarea» Saria iragarri eta arautzeko dena.

Deialdi honen xedea da Euskal Kultura Ondarearen ezagutza zabaltzen hobekien laguntzen duten 2014-2015 ikasturteko Batxilergoko lehenengo mailako eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako lehenengo mailako ikasleak saritzea.

Sari honen bidez, sustatuko da, batetik, ikasleen talde-lana, zeina ikastetxeetako irakasleek gidatuko baitute, eta, bestetik, kultura-ondarearen ezagutza sare sozialen bidez zabaltzea, zeinei euskarria Sariaren web-orrian eman nahi baitzaie (www.kulturaondarea.eus).

Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan aurreikusitakoaren ondorioetarako –zeinen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espeditenteen aurretiko izapidetzea arautzen baita–, agindu honetako diru-laguntzei buruzko ebazpena emateko garaian, kreditu egokiak eta nahikoak egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eskumenen esparruan, «Kultura Ondarea» Saria iragarri eta arautzen da.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta helburua.

1.1.– Agindu honen xedea da «Kultura Ondarea» Saria iragarri eta arautzea, zeinen helburua baita Euskal Kultura Ondarearen ezagutza zabaltzen hobekien laguntzen duten 2014-2015 ikasturteko Batxilergoko lehenengo mailako eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako lehenengo mailako ikasleak saritzea.

1.2.– «Kultura Ondarea» Sariaren helburua da hezkuntza alorreko eremu guztietan ekimena, berrikuntza, ekintzailetarako gaitasuna, sormena eta gizarte garapena bultzatu, Euskal Kultura Ondare materialaren zein inmaterialaren forma guztiak ezagutzuz eta balioa emanaz. Zehazki:

a) Kultura berritzailea eta Euskal Kultura Ondarearen gaineko ezagutza ikertu, berreskuratu eta eraikitzeko esfortzuaren aintzatespena bultzatzea.

b) Euskal Kultura Ondarea ezagutzera ematea, hezkuntza-sistematik eta hezkuntza-sistemarako.

c) Hezkuntza alorrean ekimen berritzaileak martxan jartzea bultzatzea.

d) Euskal Kultura Ondareari atxikitako ezagutzaren balorazioan eta eraikuntzan gazteek duten papera aitortzea.

e) Gazteen artean tresna teknologikoen erabilera sustatzea jabari publikoko kultura- eta hezkuntza-edukiak sortzeko.

2. artikulua.– Diru-baliabideak.

Aurreko artikuluan aurreikusitako xederako 30.000 euro erabiliko dira.

3. artikulua.– Baztertzeak.

Sariketa honetatik baztertuko dira, eta, beraz, diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukerarik gabe geldituko, zigor administratibo edo penalak dituzten parte-hartzaileak edo horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekuak dituztenak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2005eko apirilaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, sexu-bereizkeria dela-eta gertatu direnak barne.

4. artikulua.– Saria.

Hiru bideorik hoberenak egin dituzten lan-taldeetako partaideei emango zaie saria, tutorea barne, eta hauek izango dira sariak:

a) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak antolatutako Irlandarako bisita kultural batean parte hartzeko eskubidea (7 egunekoa). Bertako gidari batek lagunduko ditu pertsona sarituak Irlandako toki enblematikoenetako zenbait bisitatzeko eta haien kulturako adierazpen esanguratsuak ezagutzeko ibilbidean. Bidaiak barne hartzen ditu hegaldia, ostatua, otorduak eta gidaria, eta ekainean egingo da, ikasturtea amaitu eta gero.

Saritutako ikasleek gazte txartela indarrean izan beharko dute bidaiari parte hartu ahal izateko. Txartel honek arriskuak estaltzeko aseguruia du. Gainerako parte-hartzaileek aseguruia izateko eskubidea izango dute.

Talde irabazleen tutoreak edo tutoreek izango dute taldea osatzen duten adingabeen tutoretza, eta haien ardurapean egingo dute bidaiari. Tutoreak edo tutoreek ezin badute bidaiari antolatuan parte hartu, ikastetxeak, dagokien baimena bildu eta gero, pertsona bat izendatuko du haren ordeztu joan eta lan hori egiteko.

b) Oroigarri bat talde irabazlearen ikastetxearentzat.

5. artikulua.– Eskatzailea eta pertsona onuradunak.

Eskatzailea ikasleak matrikulatuta daudeneko ikastetxeko tutorea izango da, eta bideoak aurkezten dituzten taldeetako kide diren ikasleen ordezkari izango da.

Sariaren onuradun izango dira hobekien baloratutako hiru bideoak egin dituzten taldeetako kideak, denak ere 2014-2015 ikasturteko Batxilergoko lehenengo mailako eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako lehenengo mailako ikasleak.

6. artikulua.– Baldintzak.

Baldintza hauek betetzearen mende egongo da pertsona onuradunei laguntzak eman, eta hala dagokionean, ordaintzea:

a) Balizko onuradunek egunean egon beharko dute zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez. Kultura Ondarearen Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko du baldintza hau betetzen dela.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo beraren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasita, oraindik izapidetzen ari den itzulketari edo zehapen-prozedura oro amaitzea.

7. artikulua.– Partaidetza eta tutoretza.

7.1.– 2014-2015 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe ofizialetan matrikulatuak dauden Batxilergoko lehenengo mailako eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako lehenengo mailako ikasleek parte hartu ahal izango dute «Kultura Ondarea» Sarietan; gutxienez 3 ikaslek eta gehienez 6k osatutako talde batek landutako bi bideo aurkeztuko dituzte.

7.2.– Parte hartzen duten ikasleak matrikulatuta dauden ikastetxeko tutore bat izango da haien ordezkari, zeinak ordezkari-tza-egitekoak beteko baititu eta, gainera, parte-hartzaileen lanaren lan-keta motibatu, gidatu eta koordinatuko baitu, baina ez du inolaz ere lan horretan zuzenean parte hartuko.

8. artikulua.– Lehiaketaren mekanika.

8.1.– Sarietan parte hartu ahal izateko, talde parte-hartzaile bakoitzak bi bideo igotzeko behar izango ditu «Kultura Ondarea» sariaren web-orrira (www.kulturaondarea.eu), «Fitxategiak igotzea» atalaren bidez.

Lehenengo bideoaren gaia Euskal Kultura Ondareko elementu bat izango da, eta, ahal izanez gero, ikasleen ingurukoa.

Bigarren bideoak, lehenengo bideoa egiteko jarraitutako prozesu osoa (making-off-a) jasoko du, eta bereziki azpimarratuko da zein helburu lortu nahi izan den eta zein metodologia erabili den.

8.2.– Parte hartzen duten taldeek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntza teknikoa izango dute eskabideak aurkezteko eta beharrezko agiriak prestatzeko.

8.3.– Bideoaren gaia librea da, betiere Euskal Kultura Ondarearekin, materiala zein inmateriala, zerikusia badu.

8.4.– Bideoek, gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Jatorrizko lan argitaragabea izatea.
- b) Grabatzeko edozein gailurekin egin izana, telefono mugikorrek barne.
- c) Gutxienez 3 minutuko eta gehienez 10 minutuko iraupena izatea.
- d) Tamaina 4 gb baino handiagoa ez izatea.
- e) Eskubideetatik libre dauden edukiak (idatzia, soinua edo irudia) erabiltzea, edo, bestela, dagokion jabeak emandako berariazko baimena izatea.
- f) Eskola-curriculumean onartutako edozein hizkuntza erabiltzea.
- g) Eusko Jaurlaritzari ematea aurkeztutako bideoen zabalkunde- eta ustiaketa-eskubideak, zeinak jabari publikoan ezarriko baititu.
- h) Errespetatzea pertsonen oinarrizko eskubideak; ez da onartuko indarkeriarekin, sexismoarekin edo arrazakeriarekin zerikusia duten indarkeriazko edukirik.

9. artikulua.– Emateko prozedura.

Deialdi hau lehiaketa bidez ebatziko da. Horretarako, aurkeztutako eskabideak erkatuz emango dira sariak, eta, 12. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, lehentasunen arabera ordenatuko dira. Saria, gehien baloratutako 3 bideoak aurkeztu zituzten taldeetako partaideei bakarrik emango zaie.

10. artikulua.– Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea eta tokia.

10.1.– Eskabideak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2015eko apirilaren 30ean bukatuko.

Eskabideak, hurrengo atalean ezarritako agiriekin batera, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari helaraziko zaizkio (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan xedatutako moduren batean.

Onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko zerrenda 2015eko maiatzaren 30ean argitaratuko da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web-orrian eta lurralde-ordezkaritzen iragarki-tauletan, eta taldea osatzen duten ikasleak zein diren ere adieraziko da. Akats edo ez-egiterik balego, horiek konpontzeko arrazoia eta epea ere jakinaraziko dira, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 71. artikuluari jarraikiz. Ikusiz gero akatsak daudela baloratzeko aurkeztutako agirietan, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari huts-egitea konpontzeko edo aginduzko agiriak aurkezteko, eta jakinaraziko zaio hori egiten ez badu, ulertuko dela haren eskabidean atzera egin duela edo izapidetzeko eskubidea galdu duela; betiere, dagokion ebazpena emango da aurrez.

Balizko akatsak eta ez-egiteak konpontzeko epea amaitu ostean, 2015eko ekainaren 3an, onartutakoen behin betiko zerrenda argitaratuko da lurralde-ordezkarizetako iragarki-tauletan eta Hezkuntza Sailaren web-orrian, eta, hala badagokio, baita baztertuena ere, horiek zergatik baztertu dituzten azalduta.

10.2.– Tutoreak agiri hauek aurkeztuko ditu:

a) Eskabide-inprimakia, beteta (1. eranskina). Inprimaki horretan berariazko adostasuna eman ahal izango da Kultura Ondarearen Zuzendaritzak datuak eta agiriak eskuratu edo egiazta ditzan, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak esleituta dituen egiaztatu, kontrolatu eta aztertzeko gaitasunak. Inprimaki horrek jasoko dut, halaber, erantzukizunpeko adierazpena, adieraziz eskabidean jasotzen diren datuak eta agiriak egiazkoak direla eta betetzen dituztela laguntza hauen onuradun izateko indarreko araudian ezarritako baldintzak.

b) Tutorearen ordezkaritza egiaztatze agiriak (2. eranskina).

11. artikulua.– Balorazio-batzordea.

Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da. Hauek izango dira kideak:

Presidentea: Imanol Agote Alberro jauna, Kultura Ondarearen zuzendaria edo horrek izendatutako pertsona bat, batzordeko lehendakari izango dena.

Batzordekideak:

– Francisco Etxeberria Gabilondo jauna, Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea, edo horrek izendatutako pertsona bat.

– Begoña Garamendi Ibarra andrea, Hezkuntza Berriztatze zuzendaria, edo horrek izendatutako pertsona bat.

– Agustin Azkarate Garai-Olaun jauna, UPV-EHUko katedraduna, edo horrek izendatutako pertsona bat.

– Maite Iturbe Mendialdua andrea, EITBko zuzendari nagusia, edo horrek izendatutako pertsona bat.

– Amaia Goikoetxea Marqués andrea, Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikaria, edo berak ordezkatzeko duen teknikaria; idazkari-lanak egingo ditu.

Batzordearen lehendakariak baimena eman dezake, bere bileretan –edo horien zati batean– aztertzen diren gaietan espezializatuak diren pertsonak egoteko, zeintzuk hitz egiteko eskubidez baina botorik gabe jardun ahal izango baitute.

Batzorde horrek, agindu honen 12. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, ebazpen proposamena emango dio Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari.

12. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

12.1.– Balorazio Batzordeak aurkeztutako eskabideak ebaluatuko ditu, irizpide hauei jarraikiz:

Alderdi hauek ebaluatuko dira:

– Dokumentazio-prozesua: aurkeztutako materiala lantzeko hautatutako gaiari buruzko informazioa biltzeko informazio-iturri ezberdinen bilaketa eta jarraipena.

– Elkarrekintza gizarte ingurunearekin: ikerketa-prozesuan, informazioaren bilketa-prozesuan eta aurkeztutako materiala grabatzeko prozesuan, inguruko pertsona eta eragile garrantzitsuekin elkarrekintzan aritzea.

– Elkarriketak: elkarriketak sartzeari, horien prestakuntza eta kalitatea, horiek gaiaren barruan justifikatzea eta elkarriketatuen garrantzia (ezagutza edo/eta esperientzia garrantzitsua duten pertsonak, ezagunak izan edo ez kontuan izan gabe).

– Sormena: bideoa egiteko prozesuari edo/eta azken emaitzari originaltasuna eta freskotasuna emango dioten alderdiak.

– Partaidetza prozesua: lantalde plurala sortzea, zeinetan lan-prozesu osoan kide guztiek maila berean parte hartuko baitute. Era positiboan baloratuko da lan hori talde-lanean burutzea.

– Berrikuntza Kultura Ondarearen tratamenduan: kultura ondarearen gaineko ikuspegi eta «begirada» berriak.

– Dibulgazio izaera: aurkeztutako materialaren argitasuna eta dibulgazio-interesa.

– Kalitate teknikoa: irudiaren, soinuaren eta edizioaren kalitatea baloratuko da, betiere kontuan izanik, bideo ez-profesionalak direla.

– Balorazio orokorra: bideoak ikus-entzuleengan uzten duen inpresio orokorra.

– Partaidetza aktiboa Kultura Ondarea Sarietan: lehiaketan zehar partaidetzarako jarrera baloratuko da, esaterako, lehiaketari buruzko informazioa trukitzea, proiektuaren nondik norakoari buruzko jakinarazpenak (irudiak, making-off-ari buruzko bideo laburrak bidaltzea...) edo ideia berriak edo iradokizunak proposatzea. Horretarako, Kultura Ondarea Sariaren sare sozialak zein antolakuntzarekin zuzeneko harremana (kulturaondarea@gmail.com) erabili ahal izango dira.

– Aparteko puntuazioa.

Badaude aparteko bi irizpide, zeinak bideo bakoitzarekin eskuratutako puntuazioa handitu ahal izango baitute:

a) Euskal Kultura Ondarearen elementu berri bat aurkitzea.

b) Ikus-entzuleen bozketa: aparteko puntuazioa jasoko dute lehiaketaren Facebook-eko gunetik (www.facebook.com/kultura.ondarea) boto gehien («atsegin dut» gehien) jasotzen dituzten hiru bideoek. Bada honela, bideoa zenbat eta lehenago argitaratu, botoak jasotzeko orduan eta aukera handiagoa izango du.

12.2.– Baremazioa.

Lehenago zehaztutako irizpideen baremazioa taula honetan jasotzen den puntuazioan oinarrituz egingo da.

Irizpidea	Gehieneko puntuazioa
Dokumentazio-prozesua	10
Elkarrekintza gizarte ingurunearekin	10
Elkarrizketak	10
Sormena	10
Partaidetza-prozesua	10
Berrikuntza Kultura Ondarearen tratamenduan	10
Izaera dibulgatzailea	10
Kalitate teknikoa	10
Balorazio orokorra	10
Partaidetza aktiboa Kultura Ondarea prozesuan	10
Euskal Kultura Ondare berriaren aurkikuntza	*10
Ikus-entzuleen bozketa	* 5, 3 eta 2 (1., 2. eta 3.)
Gehieneko puntuazio orokorra	100 (115 irizpide bereziekin)

13. artikulua.– Ebazpena.

13.1.– Sarien emate-ebazpena Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak emango du, Balorazio Batzordeak helarazitako proposamena aintzat harturik, eta gehienez hilabeteko epean jakinaraziko du agindu honek eragina sortzen duenetik aurrera.

13.2.– Ebazpen hori Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web-orrian argitaratuko da denek horren berri izan dezaten.

14. artikulua.– Sariak ematea.

Sailburuak deitutako jendaurreko aintzatespen ekitaldi batean emango dira sariak, non bidaiari buruzko agiriak eta ikastetxearentzako oroigarria ere emango baitira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bat etorriaz Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organi-koan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean xedatutakoarekin, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazten dizu ezen, zuk ematen dituzun eta deialdi hone-
tako eskabidean eta fitxategietan agertzen diren datuak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren «Kultura Ondasunaren laguntzak eta diru-laguntzak» izeneko fitxategian jasoko dira,

zeina 2006ko uztailaren 27ko Aginduaren bidez arautu baitzen (irailaren 11ko EHAA, 173. zk.) eta zeinen helburua baita diru-laguntzen deialdi hau eta harekin zerikusia duen prozedura edo administrazio-espeditente oro kudeatzea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko beharrezko diren segurtasun-neurriak ditu; datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Bat etorri izatera pertsonaleko datuak babesteari buruzko arautegiarekin, datu horiek eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko eta horien aurka egiteko aukera dute interesdunek, halaxe onartzen baitu beren-beregi Datu Pertsonalak Babesteko Legeak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzara jo beharko dute (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.)

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak Administrazioari baimena ematen diote emandako datuak konparatzeko eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko (Administrazio honen esku egon zein beste Administrazio Publiko batzuen esku egon), betiere, laguntzen onuradun izateko eskatutako baldintzak betetzen direla edo betetzen jarraitzen dela egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honetan aurreikusi gabeko alderdiei dagokienez, hauek aplikatuko dira: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren VI. Tituluko aurreikuspenak, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 3a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2014ko abenduaren 18a, osteguna

I. ERANSKINA

ESKABIDE-INPRIMAKIA

«KULTURA ONDAREA» SARIA

ESKATZAILEA-TUTORE ORDEZKARIA

Izena: _____

Lehenengo abizena: _____

Bigarren abizena: _____

Sexua gizona emakumea

NANa: _____

Telefonoa: _____

OHARTARAZPENAK JASOTZEKO DATUAK:

Helbide elektronikoa: _____

SMS: _____

ESKATZAILEAK – TALDEKIDEAK

Izena: _____

Lehenengo abizena: _____

Bigarren abizena: _____

Sexua gizona emakumea

NANa: _____

Telefonoa: _____

Izena: _____

Lehenengo abizena: _____

Bigarren abizena: _____

Sexua gizona emakumea

NANa: _____

Telefonoa: _____

2014ko abenduaren 18a, osteguna

Izena: _____

Lehenengo abizena: _____

Bigarren abizena: _____

Sexua gizona emakumea

NANa: _____

Telefonoa: _____

Izena: _____

Lehenengo abizena: _____

Bigarren abizena: _____

Sexua gizona emakumea

NANa: _____

Telefonoa: _____

Izena: _____

Lehenengo abizena: _____

Bigarren abizena: _____

Sexua gizona emakumea

NANa: _____

Telefonoa: _____

Izena: _____

Lehenengo abizena: _____

Bigarren abizena: _____

Sexua gizona emakumea

NANa: _____

Telefonoa: _____

IKASKETAK EGITEN ARI DIREN IKASTETXEA

Ikastetxearen izena: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

AURKEZTUTAKO LANAREN GAIA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK**Adierazten dut nik ordezkatuak eta nik neuk:**

Ez dugula jaso sexu-bereizkeriagatik inongo zehapen penal edo administratiborik, diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duenik, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Legeari jarraikiz debeku honekin zehatuak, bereziki aipatuz sexu-bereizkeriagatik gertatu direnak.

Betetzen ditugula laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen araudian ezarritako eskakizunak.

Benetakoak direla eskabide honetan eta eskabidearekin batera doazen dokumentuetan jasotako datuak.

Adierazten dut bi bideoak «Kultura Ondarea» Sariaren web-gunera igo ditudala (www.kulturaondarea.eu), «Fitxategiak igotzea» atalaren bidez.

Adierazten dut Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarena dela sariketara aurkeztutako bideoen ustiaketa-eskubideen titulartasuna eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Jabetza Intelektualaren Lurralde Ordezkaritzan inskribatzeko eskabidea aurkeztu dela.

ADOSTASUNA

Baimena ematen diot deialdi hau kudeatzen duen organoari inprimaki honetako datuak egiazta ditzan administrazio eskudunean.

Izpta.:

II. ERANSKINA

Ekipoaren tutoreari ordezkaritza-ahalordea emateko agiria, ikasleen ordezkari gisa jardun dezan deialdiaren administrazio-prozeduran.

ADINGABEKO IKASLEENTZAT

Nik,..... jaunak/andreak (NAN-zk.:.....), ikaslearen guraso-ahalaren titular naizena,

HONAKO PERTSONA HONEN ALDEKO ORDEZKARITZA-AHALORDEA EMATEN DUT:

..... jauna/andrea (NAN-zk.:.....), nire semearen/alabaren/tutorezapekoaren izenean jardun dezan, ondorio guztietarako, «Kultura Ondarea» Sariaren deialdiari buruzko administrazio-prozeduran.

Izpta.:

ADINEZ NAGUSI DIREN IKASLEENTZAT

Nik, jaunak/andreak (NAN-zk.:.....)

HONAKO PERTSONA HONEN ALDEKO ORDEZKARITZA-AHALORDEA EMATEN DUT:

..... jauna/andrea (NAN-zk.:.....), nire izenean jardun dezan, ondorio guztietarako, «Kultura Ondarea» Sariaren deialdiari buruzko administrazio-prozeduran.

Izpta.: